

zakilixut

© Olariagak



KATE MOTZCAN

Juan Kruz Lakasta

«Kontsumismoa da herriaren opioa»

■ **Jatorrian, Eguberria Jainkoa gizaki bilakatuko den iragarpena da. Egun, gizakia Jainkoa bezala bizitzeko aitzakia dirudi.**

Teologiaren ikuspuntutik, hori da gizaki egitea erabakitzen duen Jainkoaren arriskua: geuk Jainkoaren pareko izan gaitezkeela pentsatzea.

■ **Eguberriaren iragarle nagusia, El Corte Ingles. Zer iruditzen zaizu?**

Badirudi poltsikotik tiratuz kon-
pontzen ditugula gure minak
egoera tristeetan. Espetxera jo-
atea, gaixoak bisitatzea... go-
mendatuko nuke nik.

■ Egungo herriaren opioa, El Corte Ingles?

Bere garaian, Eliza iraultza go-goak estaltzen saiatu zen. Orain, gizarte neoliberal eta kapitalistan gaude, eta horixe da lo harrarazten gaituena.

■ Iragariezazkidazu Eguberriak.

Postaletan *Atea irekitzen badiozu, ez duzu burutik kenduko* jarri dugu. Belenen jaio den Jesus haurtxoaz ari gara, baina aldi berean etorkinaz, presoaren amaz, eskean datorkizunaz...

al da sinestezin samarra gurean?

Benetan dugun bakearen ospakizuna izatea nahiko nuke, ez bake gogoaren egunak.

■ **Gaszte Pastoraltzako haurrek eskuak ez dituztela zuriz margotzen adierazi duzu. Zergatik?**

Hori estrategia bat da. Ezin ditugu gazteak manipulatu. Gure gazteen eskuak une honetan lan egiteko behar ditugu, ez bakarrik nahi duguna aldarrikatzeko.

■ Zer dio horretaz Espainiako Gotzainen Konferentziak?

Ziurrenik, esanen lidakete euskaldunagoa naizela fededuna baino. Erantzun klasikoa ematen nieke: ni beti izan naiz euskaldun fededuna.

■ **Ez litzaieke gustatuko.**

Ez gaituzte ulertzen. Elizak, herriarekin egoteko, arriskatu behar du. Arriskurik gabe ez dago ezer.

■ Egunotan, sabelkoikeria bekatua saihetsezina?

Tristea da, baina bai. Dena dela,
janari xumeagoz bete gintezke.

■ Gabon gauean bapo afaldu eta gero, ez al da gogor samarra gauerdiko meza esatea?

JUAN KRUIZ MENDIZABAL

APAIZA

Ormaiztegi (Gipuzkoa), 1963. Donostiako Gazte Pastoraltzako arduraduna, hiri bereko San Vicente elizako apaiza, ETB1eko 'Egi bidean' saioko aurkezlea, 'Firin-Faran' saioko kolaboratzailea. 'Euskaldun fededun' esamolde zaharraz definitzen du bere burua.



«Eguberrietako loteria Estatuaren iruzurra da»

baina baita gure kontraesanena
ere: ez dago gaizki gure alaita-
sunaren erdian fedea ospatzea.

■ **Bekatua al da Gabon gaue-
an osaba txiste kontalari te-
mosoarekin elkartzeko bate-**

re gogorik ez edukitzea?

Ez dut uste. Osasuntsua izan daiteke urteroko txiste pisutsu horietatik ihes egitea.

■ Loterian dirutza gastatzen dugu: diruzalekeria al da?

Estatuari ematen diogu dirua, eta zerbait itzultzen digu. Hori ez da loteria; iruzurra da. Euskal loteria egin eta benetan behar dutenei eman beharko genieke.

■ **Bekaturik larriena, Eguberrietako telebista saioak.**

Egunotan hain eskura dauden elkartasun sentimenduak aprobetxatuz, nahi dutena saltzen saiatzen dira.

■ **Egi bidean, Firin-Faran...** Badirudi telebistan agertzea gustatzen zaizula. Ez al da urguilu bekatua?

Nik lotsa bataioke urarekin galdu nuen. Nik uste dut Elizaren aurpegi freskoa ikustea ona dela, Elizaren beste ordezkari batzuk alergia ematen digutela kontuan hartuz.

■ **Aitortu iezadazu bekatu-
txoren bat.**

Zinema asko ikusten dut. Hor-
txe dirua gastatzea izango da ni-
re bekaturik handiena.

■ **Elizak infernua ez dela existitzen aitortu eta gero, ez al da zailagoa tentazioari ihes egitea?**

Tentazioaren aurrean hoberena tentazioan erortzea da. Behin, bi aldiz erori ondoren hirugarrenean zuzentzea da gizakiaren bertuterik handienetakoa.

■ Jainkoa existituko ez baltz?

Askotan pentsatzen dut berdin jokatuko nukeela, berdin amestuko nukeela.

